

Liburu bat erreserbatu dezaket?

Noski baietz!

Bilatzen duzun liburua ez bada-
go, liburuzainei erreserba egitea
eska diezaiokezu.

Guztira 2 liburu erreserbatu
ditzakezu.

Liburua erabilgarria egoten de-
nean telefonoz deituko dizugu.



Zerbait gehiago?

Bai, gogora ezazu liburutegia zu-
rea eta guztiona dela, errespetatu.

Ez ahaztu liburutegian isilik egon
behar dela, edota baxu hitzegin.

Hona etorri baino lehen askaldu
behar da, liburutegian ezin baita
jan, edan ...

Ez aspertu, irakurtzen gozatu!

ORDUTEGIA ASTELEHENETIK OSTIRALERA

Arratsaldeko 2etatik gaueko
8ak arte



Goizeko 8:30etatik eguerdiko
14:30ak arte



HELBIDEA

BIBLIOTECA PÚBLICA DE SAN PEDRO
SAN PEDROKO HERRI LIBURUTEGIA

Ugaldeko Andre Mari, z.g. 31014 (Iruña)

Tfnoa. 948 136664

[biblispe@cfnavarra.es](mailto:bibilispe@cfnavarra.es)

www.bibliotecaspublicas.es/SanPedro/index.jsp



BIBLIOTECA PÚBLICA
DE SAN PEDRO
SAN PEDROKO HERRI
LIBURUTEGIA

HAUR LIBURUTEGIKO ERABIL-GIDA



© Ilustraciones Quentin Blake

Nola egin naiteke liburutegiko bazkide?

Eskaera orria eskatu. Zure aita, ama edo zaintzen dizun pertsona heldua bete dezala. Eraman ezazu liburutegira. Ez da argazkirik behar... Eta badago!

Zenbat gauza eramán ditzaket etxera?

Txartel bakoitzeko hiru liburu, lau ikus-entzunezko (DVDak, musika CDak, CD-ROM) eta bi aldizkari

Adibidez:

📖📖📖 3 liburu (3 aste)

+

4 ikus-entzunezko (aste 1)

(🎵🎵 musika 🎮🎮 filma

🎮🎮 ordenagailu joku)

+

📰📰 2 aldizkari (aste 1)

Zenbat denbora izan ditzakezu etxean?

Liburuak hiru aste eduki ditzakezu eta bitan berritu, inork behar ez baditu. Hau da, guztira bederatzi aste eduki ditzakezu.

Filmak, musika eta cd-rom-ak zazpi egunetan zehar eduki ditzakezu, baina hauek, aldiz, ezin dira berritu.

Aldizkariak aste bat mailegu egin daitezke eta bitan ere berritu.



Mailegua berritzeko, epea luzatzeko, liburutegira etorri edo telefonoz deitzea besterik ez duzu egin behar.

Zer motatako liburuak daude liburutegian?

Marrazkidun liburu asko, kolore guztietako ipuinak, jolasak, esku-lan, magia, sukaldaritza, esperimentu, zientzia, letrak, animaliak, landare, historia, kirol, komiki, intriga, dibertigarriak, tristeak, amodioa

Ez ahaztu liburuzainak bilatzen ari zarena aurkitzen lagunduko dizutela.

Nortzuk erabil dezakete haur liburutegia?

14 urte bitarteko haur eta gazte guztiek.

6 urte baino gutxiagoko haurrak heldu batekin egon behar dira.

Ordenagailua erabil dezaket?

Haur liburutegiak bi ordenagailu dauzka, Interneten informazioa kontsultatzeko.